20 — 21

# EUSKADIKO ORKESTRA

## ROBERT TREVIÑO

**Zuzendari titularra** ˚ Director titular



SCHUBERT ˘ WAGNER ˘ MOZART ˘ SHOSTAKOVICH ˘ SCHUMANN
BARTOK ˘ SIBELIUS ˘ BEETHOVEN ˘ URQUIZA ˘ HINDEMITH
DVORAK ˘ PROKOFIEV ˘ MAHLER ˘ RACHMANINOFF

Michel Tabachnik ¯ Rinat Shaham ¯ Pablo Ferrández ¯ Behzod Abduraimov
Ruth Reinhardt ¯ Vadim Gluzman ¯ Gemma New ¯ Birgit Kolar ¯ Hans Graf
Manuel Walser ¯ Anja Bihlmaier ¯ Nikolai Lugansky

Bilbao | Bilbo ~ Donostia | San Sebastián ~ Vitoria | Gasteiz ~ Pamplona | Iruña



20 — 21

# EUSKADIKO ORKESTRA



**AURKEZPENA**
PRESENTACIÓN

Bingen Zupiria
Oriol Roch
Robert Treviño

~ 6. orr. ~

**ABONU DENBORALDIA**
TEMPORADA DE ABONO

~ 14. orr. ~

**PREZIOAK**
PRECIOS

~ 38. orr. ~

**MIRAMONGO MATINÉEAK**
MATINÉES DE MIRAMON

~ 40. orr. ~

**MUSIKA GELA**
AULA DE MÚSICA

~ 44. orr. ~

**BESTE PROIEKTU BATZUETAN BIDAIDE IZANGO DITUGU...**
OTROS PROYECTOS EN CONEXIÓN CON...

~ 48. orr. ~

**ORKESTRA IZENEZ IZEN**
LOS NOMBRES DE LA ORQUESTA

~ 49. orr. ~



# BINGEN ZUPIRIA

**Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua.**
**Euskadiko Orkestraren presidentea.**

Consejero de Cultura y Política Lingüística del Gobierno Vasco.
Presidente de Euskadiko Orkestra.

Euskadiko Orkestraren eginkizun nagusia herritarron kultura musikala aberastea da, lehengo eta oraingo musika-sortzaileen lanak entzuleengana hurbilduz zuzeneko emanaldien bidez. Covid-19aren pandemiaren eraginez ezarritako konfinamendu-garaiak, ordea, bete-betean eragotzi zion bere eginkizuna betetzea. Orain, ondorengo egoera berriak 2020/2021 Denboraldia modu berrian bizitzera gonbidatzen gaitu. Birus honekin bizi behar izango dugun aldi honetan neurri bereziak hartu beharko ditugu denok, gure burua eta urkoena zaintzeko, distantziak mantenduz eta garbitasuna bermatuz. Euskadiko Orkestrak ere bai. Datorren Denboraldirako gure helburu nagusia entzuleekin zuzeneko harremana berreskuratzea da, gauzak ongi eginez, guztiok seguru senti gaitezen. Datorren aldiari ongi etorriko zaio musikaren laguntza sendagarria. Euskadiko Orkestrak modu seguruan bermatuko dizu aukera hori. Zaindu eta bizi!





La labor principal de Euskadiko Orkestra es enriquecer la cultura musical de la ciudadanía, trasladando al público las obras de creadores musicales de todos los tiempos a través de conciertos en directo. El periodo de confinamiento motivado por la pandemia de la Covid-19, sin embargo, impidió a nuestra orquesta cumplir ese objetivo. Ahora, la nueva situación que vivimos nos invita a disfrutar de la Temporada 2020/2021 de otro modo. Durante este periodo en el que tendremos que convivir con el virus todas/os tendremos que tomar medidas especiales a fin de cuidarnos y cuidar a quienes nos rodean, manteniendo las distancias y garantizando las medidas de higiene. Euskadiko Orkestra no es una excepción. Su principal objetivo para la próxima Temporada es recuperar el contacto directo con el público, y hacerlo de forma que todas/os nos sintamos seguras/os. La música será de gran ayuda para sobrellevar el nuevo periodo al que debemos hacer frente. Y Euskadiko Orkestra garantizará esa posibilidad. Zaindu eta bizi!





# ORIOL ROCH

**Zuzendari nagusia** ~ Director general

Kontzertu-denboraldi baten hasiera beti izaten da une zoriontsu bat, baita oraingoan ere, ziurgabetasunari eta, beraz, plangintza oro marrazteko zailtasunari lotutako garaietan jarraitzen dugun arren. Lurraldeko orkestra bat gara, eta gogo biziz zeharkatzen dugu gure herrialdea abonatu guztiengana iristeko. Eta esentzia horretan datza, une honetan, gure Denboraldiaren konplexutasuna. Aurtengo programek kasuistika eta ezaugarri desberdinak izango dituzte: egun berean saioak bikoiztuko dira kasu batzuetan, programa bakoitzeko kontzertuen egun kopurua handituko da besteetan, hasiera batean programatutakoez bestelako ordutegiekin eta martxora arte iritsi ahal izan ditugun irtenbideekin. Ondoren, pandemiaren bilakaerak ahalbidetuko digun bidea marrazten jarraituko dugu. Egoera horren aurrean, ulermena, pazientzia eta konplizitatea eskatzen dizugu. Segurtasuna eman nahi dizugu, gure auditorioek lan handia egin baitute kontzertuetan seguru egon eta senti gaitezen.

Ziur nago une hau, inoiz baino gehiago, norbanakoaren aldarrikapenerako eta partekatzeko borondaterako unea dela, eta gurekin etorri nahiko duzula musikak gizarte hau egituratzen duela egiaztatzen jarraitzeko. Horregatik, Euskadiko Orkestrak osatzen duen proiektu komun hau gizartearen loturaren sinonimo da, esperientzia musikalaren eta emozioaren bitartez. Badakigu, batez ere, herrialde-kohesioa sustatzen duen kultur eragile garela. Beti sinetsi izan dugu eta hau izan da eta izango da gure motorra.

Euskadiko Orkestra: elkartzen gaituen zirrara.





El inicio de una temporada de conciertos siempre es un momento de felicidad, como lo es ahora a pesar de seguir en tiempos asociados a la incertidumbre y, por tanto, a la dificultad de dibujar toda planificación. Somos una orquesta de país, que lo recorre con entusiasmo para llegar a su importante nómina de abonadas/os. Y en esta esencia reside, en este momento, la complejidad de nuestra Temporada. Afrontamos programas con casuísticas y características diferentes, doblando sesiones en un mismo día o ampliando el número de conciertos por programa, con horarios distintos a los inicialmente programados y soluciones diversas con las que hemos podido llegar hasta el mes de marzo. Después seguiremos trazando el camino que la evolución de la pandemia nos permita. Ante esta situación, le pedimos comprensión, paciencia y complicidad. Queremos transmitirle seguridad, porque nuestros auditorios han hecho un enorme trabajo para que estemos y nos sintamos seguras/os cada día de concierto.

Estoy convencido de que este momento es, más que nunca, un momento de reivindicación individual y de voluntad de compartir, y de que usted querrá, de manera incondicional, acompañarnos para constatar nuevamente que la música vertebra esta sociedad. Por ello, este proyecto común que constituye Euskadiko Orkestra es sinónimo de unión desde la experiencia musical y la emoción. Sabemos que ante todo somos un actor cultural de cohesión de país. Siempre lo hemos creído y este ha sido y será nuestro motor.

Euskadiko Orkestra: la emoción que nos une.





# ROBERT TREVIÑO

**Zuzendari titularra** ~ Director titular

Azken aldi honetan gauza garrantzitsu bat ikasi dugu: etxea ez dago leku batean, pertsonengan baizik. Berriki bizitako trauma sakona izan da, eta gure arteko banaketa beste galera modu bat bezala pairatu dugu. Orkestra-kontzertu bat ez da ekitaldi bat bakarrik, kultura, pasioa, artea, entretenimendua eta zaletasuna bizitzeko aukera bat ere bada; horrek GUZTIAK gizateria irudikatzen duenaren baieztapena da. Euskadiko Orkestra ez da musika bakarrik, bizitzaren ospakizuna ere bada, gure komunitatearena, gure senidetasun partekatuarena.
Ongi etorri zure etxera.





Hemos aprendido algo importante en estos últimos tiempos: el hogar no está en un lugar sino en las personas. El trauma reciente ha sido profundo, hemos sufrido la separación entre nosotras/os como otra forma de pérdida. Un concierto orquestal no es solo un evento, es una ocasión para vivir la cultura, la pasión, el arte, el entretenimiento, la afición; es la afirmación de que TODO ello representa a la humanidad. Euskadiko Orkestra no es solo música, es también la celebración de la vida, de nuestra comunidad, de nuestra fraternidad compartida.
Bienvenida/o a tu hogar.



# 20/21 DENBORALDI HONETAN ERE, EUSKADIKO ORKESTRAK ZAINDU EGINGO ZAITU

Bizi dugun pandemia honetan gure lehentasuna kontzertu-denboraldia ahalik eta osoen mantentzea izan da, betiere zure segurtasuna bermatzeko neurriak betez. Jarraian, Denboraldi honek aurrekoekin alderatuta izango dituen berezitasun batzuk azalduko dizkizugu.

## Edukiera murrizketei aurre egiteko abonatu taldeen sorrera

Gure auditorioen ohiko okupazio handia bateraezina da indarrean dagoen edukiera-murrizketarekin. Horregatik, hiri bakoitzean abonatuak bi taldetan banatu ditugu, Donostian izan ezik (han lau izango dira):

| Bilbao \| Bilbo | Donostia \| San Sebastián A | Donostia \| San Sebastián B | Vitoria \| Gasteiz | Pamplona \| Iruña |
|---|---|---|---|---|
| 1 2 | 1 2 | 1 2 | 1 2 | 1 2 |

## Auditorio seguruak

Gure egoitzek gogor egin dute lan beren eremuak gozamenerako gune seguruak izan daitezen:

- Nahitaezkoa izango da maskara erabiltzea.
- Segurtasun-tartea eta aretoko langileek sartzeko eta irteteko emandako jarraibideak errespetatuko dira.
- Sarreran derrigorrezkoa izango da eskuak gel hidroalkoholikoarekin garbitzea.
- Kontzertura garaiz joatea gomendatzen da.

Informazio gehiago nahi izanez gero, jo beren webguneetara:
**kursaal.eus** / **euskalduna.eus** / **principalantzokia.org** / **baluarte.com**

## Atsedenik gabeko programa laburragoak

Kontzertuak laburragoak izango dira eta atsedenik gabe egingo dira, pasilloetatik igarotzea ahalik eta gehien saihesteko.

## Sarreren salmenta eserlekuak libre egotearen arabera

Sarreren salmenta kontzertu bakoitza egin aurreko egunetan aktibatuko da, beti ere eserleku librerik balego. Informazio eguneratua: **euskadikoorkestra.eus**

## Doikuntzak programazioan eta abonamenduaren prezioan

Orkestrak ordezko planak ditu programak aldatzeko. Hala ere, gerta liteke kontzertu kopurua murriztu behar izatea edota horietako batzuk bertan behera uztea. Hala balitz, Denboraldi amaieran egingo lirateke doikuntzak abonamenduaren prezioan.

# EN ESTA TEMPORADA 20/21 EUSKADIKO ORKESTRA TAMBIÉN TE CUIDA

En la situación actual de pandemia, nuestra prioridad ha sido conservar al máximo la Temporada de conciertos siempre cumpliendo las medidas que garanticen tu seguridad. A continuación te explicamos algunas de las particularidades que tendrá esta Temporada con respecto a otras anteriores.

## Creación de grupos de abonadas/os para combatir las restricciones de aforo

La habitual alta ocupación de nuestros auditorios es incompatible con la vigente restricción de aforo. Por ello, en cada ciudad hemos dividido a las/os abonadas/os en dos grupos, salvo en San Sebastián, donde serán cuatro:

| Bilbao \| Bilbo | Donostia \| San Sebastián A | Donostia \| San Sebastián B | Vitoria \| Gasteiz | Pamplona \| Iruña |
|---|---|---|---|---|
| 1 2 | 1 2 | 1 2 | 1 2 | 1 2 |

## Auditorios seguros

Nuestras sedes han trabajado duro para hacer de sus recintos espacios seguros de disfrute:

- Será obligatorio el uso de mascarilla.
- Se respetarán la distancia de seguridad y las indicaciones del personal de sala para el acceso y salida.
- A la entrada será obligatorio lavarse las manos con gel hidroalcohólico.
- Se recomienda acudir al concierto con suficiente antelación.

Para más información acudir a sus webs:
**kursaal.eus** / **euskalduna.eus** / **principalantzokia.org** / **baluarte.com**

## Programas más breves sin descansos

Los conciertos serán más cortos y se celebrarán sin descanso para evitar al máximo el tránsito por los pasillos.

## Venta de entradas sujeta a disponibilidad

La venta de entradas se activará en fechas cercanas a la celebración de cada concierto y siempre que haya disponibilidad. Información actualizada en **euskadikoorkestra.eus**

## Ajustes en la programación y en el precio del abono

La orquesta cuenta con planes alternativos para modificar programas. Aun así, cabe la posibilidad de tener que reducir el número de conciertos o incluso cancelarlos. En tal caso, se realizarán los ajustes relativos al precio del abono a final de Temporada.

20 — 21

# ABONU DENBORALDIA

Denboraldi honetan Erromantizismoaren eraikuntzan jarriko dugu arreta, musika arte gisa aldarrikatzen duen eta hausnarketa filosofikora bultzatzen duen mugimenduaren eraikuntzan, alegia. Musikari lehen aldiz izaera sublimea eman zitzaion aro horretan. Garrantzia nabarmena izango dute Schumann, Schubert eta Wagner bezalako konpositoreek, egun ezagutzen dugun formazio sinfonikoaren eredua finkatzeko ekarpena egin zutenak. Haiek, era berean, beste autore handi batzuengana eramango gaituzte, Mahler, Bartok eta Rakhmaninov kasu, musika aldarrikatzeko eta, horrekin, baita gizakia eta bizitza ere.

Zuzendari gisa, Robert Treviñoz gain, Reinhardt, New eta Bihlmaier gazteak eta Tabachnik eta Graf beteranoak izango ditugu. Abduraimov eta Lugansky pianojoleak, Kolar eta Gluzman biolinjoleak eta Ferrández biolontxelojolea izango dira bakarlari gonbidatuak Denboraldi honetan.

En esta Temporada ponemos el foco en la construcción del Romanticismo, que reivindica la música como arte y la dota de reflexión filosófica. Se trata de una época en la que por primera vez se le concede a la música un carácter sublime. Tendrán una especial relevancia compositores como Schumann, Schubert y Wagner, que contribuyeron a asentar el modelo de formación sinfónica que hoy conocemos. Ellos, a su vez, nos conducirán a otros grandes autores como Mahler, Bartok y Rachmaninoff para reivindicar la música y, con ella, el ser humano y la vida.

En la batuta, junto a Robert Treviño, contaremos con la juventud de Reinhardt, New y Bihlmaier, y la veteranía de Tabachnik y Graf. Los pianistas Abduraimov y Lugansky, violinistas Kolar y Gluzman y el violonchelista Ferrández son los solistas invitados de esta Temporada.



# TEMPORADA DE ABONO

**Bilbao | Bilbo**
Palacio Euskalduna Jauregia

**Donostia | San Sebastián**
Auditorio Kursaal Auditoriuma

**Vitoria | Gasteiz**
Teatro Principal Antzokia

**Pamplona | Iruña**
Auditorio Baluarte Auditoriuma



# SCHUBERT



EGITARAUA ^ PROGRAMA

**F. SCHUBERT.** Sinfonías n° 1, 2, 3, 4, 5, 6, 8, 9

Schubertek bizitza zaila izan zuen, eta ez zen inoiz ospetsu izatera iritsi bere garaiko ikusleen artean. Hala ere, oso lagun leialen talde bat izan zuen, eta, 1815etik aurrera, bere omenez, *Schubertiade* direlakoak antolatzen hasi ziren; jaialdi pribatuak ziren, eta egilearen musika ospatu eta beste arte batzuekin erlazionatzen zen. Gaur egun, Europako hainbat tokitan, indarrean dago oraindik tradizio hori. Eredu horretan inspiratuta, eta Erromantizismoan oinarritzen den Denboraldiari handitasunez hasiera emateko, Euskadiko Orkestrak bere *Schubertiade* propioa ospatuko du, eta Robert Treviño izango da zeremonia-maisu. Ez da inoiz egin horrelako ezer hemen inguruan: astebetean, Schuberten zortzi sinfoniak entzuteko aukera eskainiko du, lau hiriburuetan banatuta eta saio bikoitzetan.

Schubert tuvo una vida difícil y nunca llegó a alcanzar la celebridad entre el público de su tiempo, pero sí contó con un círculo de amigos muy fieles que, a partir de 1815, comenzaron a celebrar schubertiadas en su honor, es decir, festivales privados en los que se celebraba su música y se la ponía en relación con otras artes, dando inicio a una tradición que sigue vigente aún hoy en varios lugares de Europa. Inspirándose en ese modelo, y para dar comienzo por todo lo alto a una Temporada que tiene su razón de ser en el Romanticismo, la Euskadiko Orkestra celebrará su propia schubertiada con Robert Treviño como maestro de ceremonias. Una propuesta sin precedentes en nuestros lares, ya que ofrecerá la oportunidad de escuchar las ocho sinfonías de Schubert en apenas una semana, repartidas por las cuatro capitales y en sesiones dobles.

**Robert Treviño**
Zuzendaria ˚ Director



## IRAILA ^ SEPTIEMBRE

**25 Vitoria | Gasteiz**

1 > **18:00:** Sinfonías nº 1, 6
2 > **20:30:** Sinfonías nº 3, 9

**28 Donostia | San Sebastián A**

1 > **18:00:** Sinfonías nº 1, 6
2 > **20:15:** Sinfonías nº 5, 4

**29 Donostia | San Sebastián B**

1 > **18:00:** Sinfonías nº 2, 8
2 > **20:15:** Sinfonías nº 3, 9

**30 Bilbao | Bilbo**

1 > **18:00:** Sinfonías nº 2, 8
2 > **20:15:** Sinfonías nº 5, 4

## URRIA ^ OCTUBRE

**1 Pamplona | Iruña**

1 > **18:00:** Sinfonías nº 1, 6
2 > **20:15:** Sinfonías nº 3, 9

WAGNER | MOZART

# WAGNER



EGITARAUA ^ PROGRAMA

**R. WAGNER.** Idilio de Sigfrido [18']
Wesendonck Lieder [21']

**W. A. MOZART.** Sinfonía nº 35, 'Haffner' [18']

Schubert Erromantizismo musikalaren hastapenetan funtsezko pertsonaia izan zen bezala, Richard Wagnerrek opera corpus bat sortu zuen, non maitasuna, erlijioa edo filosofia bezalako gai handietara hurbildu zen, mugimendu artistiko honen heldutasun aldiaren muina direnak. Michel Tabachnikek, Karajan eta Boulez bezalako funtsezko zuzendarien eskutik Wagner ezagutu zuenak, bere operetatik ez datozen baina horiekin lotura estua duten bi orri jorratuko ditu: *Sigfridoren idilioa* poema sinfonikoa, urte batzuk geroago Wagnerrek *Sigfrido* operan erabiliko zuena, eta bost *Wesendonck Lieder* delakoak, 1857an idatzi zituenak *Tristan eta Isolda* operan lanean ari zela eta Mathilde Wesendonck bertsoen egileaz maiteminduta zegoela. Rinat Shahamek, gaur egun mundu osoan eskaera gehien jasotzen ari den mezzosopranoetako batek, bere ahotsa jarriko die abesti grinatsu hauei. Wagnerren intentsitatearen kontrapuntu gisa, Mozartek *35. Sinfonia*ren, *"Haffner"*, partiturara eraman zuen espiritu dibertigarri zein solemnearekin amaituko da kontzertua.

Si Schubert fue una figura fundamental en los inicios del Romanticismo musical, Richard Wagner creó un corpus de óperas en las que se acercó a grandes temas como el amor, la religión o la filosofía, y que son la quintaesencia del período de madurez de este movimiento artístico. Michel Tabachnik, que se introdujo en Wagner de la mano de dos directores fundamentales como son Karajan y Boulez, abordará dos páginas que no proceden de sus óperas pero que están íntimamente relacionadas con ellas: el poema sinfónico *El idilio de Sigfrido*, cuya música Wagner usaría años después en la ópera *Sigfrido*, y los cinco *Wesendonck Lieder*, que escribió en 1857 mientras trabajaba en la ópera *Tristán e Isolda* y enamorado de la autora de los versos, Mathilde Wesendonck. Rinat Shaham, una de las mezzosopranos más solicitadas actualmente en todo el mundo, prestará su voz a estas apasionadas canciones. Como contrapunto a la intensidad wagneriana, el concierto finalizará con el espíritu festivo y solemne que Mozart trasladó a la partitura de su *Sinfonía nº35, "Haffner"*.

**Michel Tabachnik**
Zuzendaria ˚ Director

**Rinat Shaham**
Mezzosopranoa ˚ Mezzosoprano





## URRIA ^ OCTUBRE

**29 Donostia | San Sebastián A**
1 > 19:30

**30 Donostia | San Sebastián A**
2 > 19:30

## AZAROA ^ NOVIEMBRE

**2 Vitoria | Gasteiz**
1 > 20:00

**3 Pamplona | Iruña**
1 > 18:00
2 > 20:15

**4 Bilbao | Bilbo**
1 > 18:00
2 > 20:15

**5 Donostia | San Sebastián B**
1 > 19:30

**6 Donostia | San Sebastián B**
2 > 19:30

**9 Vitoria | Gasteiz**
2 >20:00

SHOSTAKOVICH | SCHUMANN

# ENIGMATIKOA



EGITARAUA ^ PROGRAMA

①

**D. SHOSTAKOVICH.** Concierto para violonchelo nº 2 [33']
**R. SCHUMANN.** Sinfonía nº4 [28']

②

**D. SHOSTAKOVICH.** Concierto para violonchelo nº 1 [30']
**R. SCHUMANN.** Sinfonía nº2 [38']

2019ko maiatzean orkestrarekin eta Robert Treviñorekin batera debuta egin ostean, berriz etorriko da gurera Pablo Ferrández biolontxelojole gaztea. Oraingo honetan, tandemak Dmitri Xostakovitx konpositore errusiarrak Mstislav Rostropovitxentzat idatzitako biolontxelorako bi kontzertuei helduko die. 1959an konposatutako *Biolontxelorako 1. kontzertua* errepertorioko fisikoenetako eta zailenetako bat da instrumentuarentzat, Xostakovitx biolontxelojole errusiarraren birtuosismoan inspiratu baitzen. 1966an datatutako *Biolontxelorako 2. kontzertua*n, hala ere, Rostropovitxen interpretatzeko moduaren "intentsitatea, adimenaren egonezina eta espiritualtasun handia" arakatu nahi izan zituen. Robert Treviñok Schumannen bi sinfonia jorratuko ditu: *4. Sinfonia* izugarria, 1841 urteko maisulana, non Schumannek pianoa alde batera utzi zuen musika sinfonikoan zentratzeko; eta *2. Sinfonia* ikusgarria, erabat bitalista, Schumannek osasun mentaleko arazo larriez markatutako garai batean idatzi zuen arren.

Volvemos a recibir al joven violonchelista Pablo Ferrández, tras su exitoso debut junto a la orquesta y Robert Treviño en mayo de 2019. En esta ocasión, el tándem abordará los dos conciertos para violonchelo que el compositor ruso Dmitri Shostakovich escribió para Mstislav Rostropovich. El *Concierto nº 1*, compuesto en 1959, es uno de los más físicos y difíciles del repertorio para el instrumento, ya que Shostakovich se inspiró en el enorme virtuosismo del violonchelista ruso. En el *Concierto nº 2*, datado en 1966, quiso sin embargo explorar "la intensidad, inquietud de la mente y elevada espiritualidad" de la forma de interpretar de Rostropovich. Robert Treviño abordará dos sinfonías de Schumann: la imponente *Sinfonía nº 4*, obra maestra del portentoso año 1841 en el que Schumann dejó a un lado el piano para centrarse en la música sinfónica; y la espectacular *Sinfonía nº 2*, marcadamente vitalista a pesar de que Schumann la escribió en un periodo marcado por graves problemas de salud mental.



**Robert Treviño**
Zuzendaria ˚ Director



**Pablo Ferrández**
Biolontxeloa ˚ Violonchelo



## ABENDUA ^ DICIEMBRE

**4 Donostia | San Sebastián A**
1 > 18:00
2 > 20:15

**7 Pamplona | Iruña**
1 > 18:00
2 > 20:15

**9 Bilbao | Bilbo**
1 > 18:00
2 > 20:15

**10 Donostia | San Sebastián B**
1 > 18:00
2 > 20:15

**11 Vitoria | Gasteiz**
1 > 18:00
2 > 20:30

**Oharra: Talde bakoitzak programa ezberdina izango du. Ikus 20. orrialdea.**
Nota: Cada grupo disfrutará de un programa diferente. Ver página 20.

BARTOK | SIBELIUS | BEETHOVEN

# AIRE NORDIKOA



EGITARAUA ^ PROGRAMA

①

**B. BARTOK.** Concierto para piano nº3 [23′]
**J. SIBELIUS.** Sinfonía nº 3 [32′]

②

**L.V. BEETHOVEN.** Concierto para piano nº 1 [36′]
**J. SIBELIUS.** Sinfonía nº 4 [36′]

The Independent egunkariak "bere belaunaldiko pianistarik perfektuena" gisa izendatu zuen Behzod Abduraimov pianojole uzbeko gazteak bere debuta egingo du gure Denboraldian, bere talentua elkarren artean oso ezberdinak diren bi kontzertutan erakutsiz: heldutasuneko lan bat, Bela Bartok hungariarrak hil aurretik osatu zuen azkena, *Pianorako 3. kontzertua*, lirismo eta lasaitasun berezia gordetzen duena. Gaztetako Beethovenera ere hurbilduko da Abduraimov, Haydn eta Mozarten eragina jasotzen duen *Pianorako 1. kontzertua*rekin. Robert Treviñok Sibeliusen bi sinfonia jorratuko ditu, biak nahiko gutxi programatuak: *3. Sinfonia,* Sibelius ordura arte bereizgarri izan zuen kutsu hipererromantiko eta nazionalistatik urrundu zuena; eta *4. Sinfonia,* Sigmund Freuden teoriek eraginda, konpositoreak berak "sinfonia psikologiko bat" deitu zuena.

El joven pianista uzbeko Behzod Abduraimov, definido por The Independent como "el pianista más perfecto de su generación", hará su debut en nuestra Temporada mostrando su talento en dos conciertos muy distintos entre sí: una obra de madurez, la última que completó el húngaro Bela Bartok antes de su muerte, el *Concierto para piano nº 3,* que alberga un lirismo y serenidad que lo distinguen de sus conciertos anteriores. Abduraimov se acercará también al Beethoven de juventud con su *Concierto para piano nº1*, en el que aún se percibe la influencia de Haydn y Mozart. Robert Treviño abordará dos sinfonías de Sibelius, ambas relativamente poco programadas: la *Sinfonía nº3*, con la que Sibelius comenzó a alejarse del tono hiperromántico y nacionalista que lo había caracterizado hasta entonces; y la *Sinfonía nº4,* influenciada por las teorías de Sigmund Freud y que el propio compositor llamó "una sinfonía psicológica".

**Robert Treviño**
Zuzendaria ˚ Director

**Behzod Abduraimov**
Pianoa ˚ Piano





## URTARRILA ^ ENERO

**15 Donostia | San Sebastián A**
1 > 18:00
2 > 20:15

**16 Bilbao | Bilbo**
1 > 18:00
2 > 20:15

**19 Iruña | Pamplona**
1 > 18:00
2 > 20:15

**21 Donostia | San Sebastián B**
1 > 18:00
2 > 20:15

**22 Vitoria | Gasteiz**
1 > 18:00
2 > 20:30

**Oharra: Talde bakoitzak programa ezberdina izango du. Ikus 22. orrialdea.**
Nota: Cada grupo disfrutará de un programa diferente. Ver página 22.

URQUIZA | HINDEMITH | DVORAK

# BIZIRIK
## SUPERVIVIENTES



EGITARAUA ^ PROGRAMA

①

**M. URQUIZA.** Mis monstruos marinos [10']
**P. HINDEMITH.** Música concertante para cuerdas y metales [17']
**A. DVORAK.** Sinfonía nº 5 [36']

Ruth Reinhardt zuzendari alemaniar goiztiarra da: 17 urterekin bere opera propioa konposatu eta zuzendu zuen Saarbrücken jaioterrian. Azken urteetan, gainera, Cleveland, Seattle, Dallas edo Malmö bezalako orkestra garrantzitsuen podiumetara igotzen ari da. Euskadiko Orkestrarekin egingo duen estreinaldian, programa heterogeneoa zuzenduko du eta, XX. mendeari keinu egin ostean Hindemithen *Hari eta metaletarako musika kontzertantea*rekin, *Elkano: Mundubira musika bidelagun* proiektu handiari berrekingo dio. Lehen mundubirari soinua jarri nahi dion egitasmo honek Mikel Urquiza konpositorearen eskutik jarraituko du bere bidaia eta Getariako marinelaren espedizioa kontinente amerikarrera iritsi eta bertan aurkikuntza zoragarriak egin zitueneko unera hurbilduko gaitu bizkaitarraren *Nire itsas munstroak* lanak. Kontzertua Dvoraken *5. Sinfonia*k itxiko du, perfekzio leuneko partitura; konpositore bohemioak heldutasun musikalerako bidea eman zuen bertan.

Ruth Reinhardt es una precoz directora alemana que con solo 17 años ya había compuesto y dirigido su propia ópera en su ciudad natal, Saarbrücken, y que en los últimos años está subiendo al podio de orquestas tan importantes como las de Cleveland, Seattle, Dallas o Malmö. En su debut con Euskadiko Orkestra, dirigirá un programa heterogéneo que, tras un guiño al siglo XX con la *Música concertante para cuerdas y metales* de Hindemith, retomará el gran proyecto *Elkano: Mundubira musika bidelagun*. Esta celebración de la primera circunnavegación a través del sonido prosigue su viaje de la mano del compositor Mikel Urquiza, que en *Mis monstruos marinos* se acerca al continente americano y a los fabulosos descubrimientos que realizó allí la expedición del marinero de Getaria. Cerrará el concierto la *Sinfonía nº 5* de Dvorak, una partitura de pulida perfección con la que el compositor bohemio dio el paso a la madurez musical.

**Ruth Reinhardt**
Zuzendaria ˚ Directora



## URTARRILA ^ ENERO

**29 Donostia | San Sebastián A**
1 > 19:30

## OTSAILA ^ FEBRERO

**1 Donostia | San Sebastián B**
1 > 19:30

**3 Bilbao | Bilbo**
1 > 19:30

**4 Vitoria | Gasteiz**
1 > 20:00

**9 Pamplona | Iruña**
1 > 19:30

**Oharra: Edukierak mugatuta jarraitzen badu, 1. taldeak bakarrik gozatuko du programa honetaz. 2021 hasieran konfirmatuko da.**
Nota: Si persisten las restricciones de aforo, solo el grupo 1 disfrutará de este programa. Se confirmará a principios del 2021.

PROKOFIEV | SCHUMANN

# BIDAIAK
# LOS VIAJES



EGITARAUA ^ PROGRAMA

2

**S. PROKOFIEV.** Concierto para violín n°2 [26']

**R. SCHUMANN.** Sinfonía n°3, 'Renana' [32']

Euskadiko Orkestrak harrera beroa egingo dio Vadim Gluzman biolinjoleari, hark orkestrarekin 2018an Austrian eta Alemanian bira egin ostean. Gure Denboraldian Sergei Prokofieven *Biolinerako 2. kontzertua* aurkeztuko du, egile errusiarraren konposizio liriko eta nabarmenki sentimentalenetako bat. Gemma New Zeelanda Berriko zuzendari apartak, St. Louis edo Dallasekoa bezalako estatubatuar orkestrei oso lotuta dagoenak, zuzenduko du Schumannen *3. Sinfonia, "Renaniarra"*, Beethovenen *Pastorala*ren schumanniar baliokidetzat hartua. Izenburuak igartzen uzten duen bezala, bere barnean Schumannek Renaniako edertasun natural eta arkitektonikoei kantatu zien, Dusseldorfera emazte Clararekin bizitzera joan eta Kolonia ere ezagutu eta gero, zeinaren katedrala sinfonia honen laugarren mugimendu bikainean jaso zuen.

Euskadiko Orkestra brindará un cálido recibimiento al violinista Vadim Gluzman, que en 2018 le acompañó en su gira por Austria y Alemania. Hará su presentación en nuestra Temporada con el *Concierto para violín nº2* de Sergei Prokofiev, una de las composiciones más líricas y abiertamente sentimentales del autor ruso. Gemma New, una extraordinaria directora neozelandesa muy ligada a orquestas estadounidenses como las de St. Louis o Dallas, dirigirá después la *Sinfonía nº3, "Renana"* de Schumann, considerada el equivalente schumanniano de la *Pastoral* de Beethoven. Tal y como su título permite adivinar, en su interior Schumann cantó a las bellezas naturales y arquitectónicas de Renania, poco después de mudarse a Dusseldorf con su esposa Clara y haber conocido también Colonia, cuya catedral recogió en el majestuoso cuarto movimiento de esta sinfonía.

**Gemma New**
**Zuzendaria** ˚ Directora

**Vadim Gluzman**
**Biolina** ˚ Violín





## MARTXOA ^ MARZO

**12 Donostia | San Sebastián A**
2 > 19:30

**15 Vitoria | Gasteiz**
2 > 20:00

**16 Iruña | Pamplona**
2 > 19:30

**17 Bilbao | Bilbo**
2 > 19:30

**18 Donostia | San Sebastián B**
2 > 19:30

**Oharra: Edukierak mugatuta jarraitzen badu, 2. taldeak bakarrik gozatuko du programa honetaz. 2021 hasieran konfirmatuko da.**
Nota: Si persisten las restricciones de aforo, solo el grupo 2 disfrutará de este programa. Se confirmará a principios del 2021.

MAHLER

# GAUA
# LA NOCHE



EGITARAUA ^ PROGRAMA

**G. MAHLER.** Sinfonía n°7, 'Canción de la noche' [77']

Gustav Mahlerren *7. sinfonia* (1905ean amaitu zuen) beste sinfonia batzuen narratiba pertsonaletik urruntzen den lan garaile bat da, gauetik egunerako bidaia metafisiko bat proposatzen duena (horregatik dauka «Gauaren kanta» ezizena). Naturaren sinfonia ere bada; Karintiako paisaia eta Wörthersee lakua aipatzen dira, Mahlerrek bi uda eman baitzituen bertan konposatzen: «arraunak uretan lehen aldiz sartzean, nigana etorri zen sarreraren gaia (edo, hobeto esanda, sarreraren erritmoa eta atmosfera)», gogoratzen zuen konpositoreak urte batzuk geroago. Robert Treviñok Mahlerren sinfonia handiak interpretatu ditu, hala nola Londresko Orkestra Sinfonikoarekin eta Munichko Orkestra Filarmonikoarekin, eta asko goraipatu dute. Hori dela eta, *Zazpigarrena*rekin hasiko du Mahlerren musika oso presente egongo den denboraldiaren azken zatia.

La *Sinfonía n°7,* que Gustav Mahler finalizó en 1905, es una obra victoriosa que se aleja de la narrativa personal de otras sinfonías para proponer un viaje metafísico de la noche al día (de ahí su sobrenombre, "Canción de la noche"). Es también una sinfonía de la naturaleza, ya que recoge el paisaje de Carintia, del lago Wörthersee donde Mahler pasó dos veranos componiéndola: "con la primera inmersión de los remos en el agua, el tema de la introducción (o más bien, su ritmo, su atmósfera) vino a mí", recordaría años más tarde el compositor. Robert Treviño, que ha interpretado las grandes sinfonías de Mahler con orquestas como la Sinfónica de Londres o la Filarmónica de Múnich, recibiendo grandes elogios, dará comienzo con la *Séptima* a un tramo final de temporada en el que la música de Mahler estará muy presente.

**Robert Treviño**
Zuzendaria ˚ Director



APIRILA ^ ABRIL

- **8** **Donostia | San Sebastián A** > 19:30
- **9** **Donostia | San Sebastián B** > 19:30
- **10** **Bilbao | Bilbo** > 19:30
- **13** **Pamplona | Iruña** > 19:30
- **14** **Vitoria | Gasteiz** > 20:00

**Oharra: Kontzertu-programa honen antolamendua 2021 hasieran emango da ezagutzera.**
Nota: La organización de este programa de conciertos se comunicará a principios del 2021.

RACHMANINOFF | BARTOK

# GAZTEAK

# JÓVENES



EGITARAUA ^ PROGRAMA

**S. RACHMANINOFF.** The Rock [16']
**B. BARTOK.** Concierto para violin n°1 [21']
**S. RACHMANINOFF.** Sinfonía n°1 [42']

Rakhmaninovek eta Bartokek musika-lan asko idatzi zituzten gaztaroan. Gazte-lanen corpus honetako obrak inperfektuak badira ere, bultzada espresibo liluragarriz eginda daude, eta kontzertu honen protagonistak izango dira. Hasiera Rakhmaninovek 20 urterekin idatzitako *The Rock* fantasia sinfonikoak emango dio. Eta, horrekin batera, bere *1. sinfonia,* zorigaitzez ezaguna; izan ere, hain kritika txarrak jaso zituen estreinaldian, non Rakhmaninovek, deprimituta, konposatzeari utzi baitzion hiru urtez. Egia esan, lan bikaina da, bere etorkizuneko ekoizpenaren hazia aurki baitaiteke bertan. Tartean, Birgit Kolar austriar bakarlariak Bartoken *Biolinerako 1. kontzertua* interpretatuko du. Lanak egile hungariarra folklorean murgildu aurretik zuen alderdi erromantikoa eta ezezaguna erakusten du. Hans Graf (Euskadiko Orkestrako titularra 1994tik 1996ra) berriro itzuliko da gure Denboraldira, oso ohikoa ez den programa hau zuzentzeko.

Tanto Rachmaninoff como Bartok escribieron bastante música en su juventud. Este corpus de obras juveniles, quizá imperfectas pero de un arrebatador impulso expresivo, será protagonista de este concierto que comienza con la fantasía sinfónica *The Rock,* escrita por un Rachmaninoff de solo 20 años. Y junto a ella, su *Sinfonía n°1,* tristemente célebre porque recibió críticas tan malas en su estreno que Rachmaninoff, deprimido, dejó de componer durante tres años. Se trata, en realidad, de una obra magnífica, en la que puede hallarse el germen de su producción futura. Entremedio, la solista austriaca Birgit Kolar abordará el *Concierto para violín n°1* de Bartok, que presenta una cara poco conocida, plenamente romántica, del autor húngaro antes de su inmersión en el folclore. Hans Graf, titular de Euskadiko Orkestra entre 1994 y 1996, regresa una vez más a nuestra Temporada para dirigir este programa poco frecuente.

**Hans Graf**
Zuzendaria ˚ Director



**Birgit Kolar**
Biolina ˚ Violín



## MAIATZA ^ MAYO

- **3 Donostia | San Sebastián A**
  > 19:30
- **4 Pamplona | Iruña**
  > 19:30
- **5 Bilbao | Bilbo**
  > 19:30
- **6 Donostia | San Sebastián B**
  > 19:30
- **10 Vitoria | Gasteiz**
  > 20:00

**Oharra: Kontzertu-programa honen antolamendua 2021 hasieran emango da ezagutzera.**
Nota: La organización de este programa de conciertos se comunicará a principios del 2021.

WAGNER | MAHLER | SCHUMANN

# NORAGABEKO ADISKIDEA

## CAMARADA ERRANTE



**EGITARAUA** ^ PROGRAMA

**R. WAGNER.** Tristán e Isolda, preludio y muerte de amor [17']
**G. MAHLER.** Canciones de un camarada errante [16']
**R. SCHUMANN.** Sinfonía n°1, 'Primavera' [30']

Anja Bihlmaier Alemaniako opera-antzoki eta kontzertu-aretoetako zuzendari aktiboenetako bat da, baita Eskandinavia eta Erresuma Batukoetakoa ere. Euskadin egingo duen estreinaldian, gure Denboraldi osoa lotzen duen garaia laburtuko du: Erromantizismoa. Wagnerren *Tristan eta Isolda* operako ezinezko amodioaren sublimazioaren ondoren, *Preludioa eta maitasunagatiko heriotza* lanean laburbilduta, Manuel Walser baritonoak ahotsa emango die Mahlerren *Lieder* laneko lehen zikloko *Noragabeko adiskide baten kantak* deritzenei. Walserrek (Thomas Quasthoffen ikaslea eta, azken urteotan, Vienako Operako izarretako bat) bidaiariaren rola hartuko du, bidean utzi dituen amodioen inguruko hausnarketan. Ekitaldia Schumannen *1. sinfonia*rekin amaituko da. Konpositorearen lehen orkestra-lan handia da; hilabete baino gutxiago behar izan zuen idazteko, inspirazio-aldi harrigarri bat izan zuen eta.

Anja Bihlmaier es una de las directoras más activas en los teatros de ópera y en las salas de concierto de Alemania, así como en las de Escandinavia y Reino Unido. En su debut en Euskadi abordará un programa que es epítome del periodo que hila toda nuestra Temporada, el Romanticismo. Tras la sublimación del amor imposible en la ópera *Tristán e Isolda* de Wagner, resumida en su *Preludio y muerte de amor*, el barítono Manuel Walser dará voz a las *Canciones de un camarada errante*, el primer ciclo de *Lieder* de Mahler. Walser, alumno de Thomas Quasthoff y una de las estrellas de la Ópera de Viena en los últimos años, encarnará al viajero protagonista en su reflexión sobre los amores que ha ido dejando en el camino. La velada finalizará con la *Sinfonía n°1* de Schumann, su primera gran obra orquestal, escrita en menos de un mes en un prodigioso rapto de inspiración.



**Anja Bihlmaier**
Zuzendaria ˚ Directora

**Manuel Walser**
Baritonoa ˚ Barítono





## MAIATZA ^ MAYO

- **20 Donostia | San Sebastián A** > 19:30
- **21 Donostia | San Sebastián B** > 19:30
- **24 Bilbao | Bilbo** > 19:30
- **25 Pamplona | Iruña** > 19:30
- **26 Vitoria | Gasteiz** > 20:00

**Oharra: Kontzertu-programa honen antolamendua 2021 hasieran emango da ezagutzera.**
Nota: La organización de este programa de conciertos se comunicará a principios del 2021.

RACHMANINOFF | MAHLER

# NEW YORK



EGITARAUA ^ PROGRAMA

**S. RACHMANINOFF.** Rapsodia sobre un tema de Paganini [22']

**G. MAHLER.** Sinfonía nº5 [68']

Rakhmaninov historiako pianojole bikainenetako bat izan zen eta, *Paganiniren gai baten gaineko rapsodian* (modu ez ofizialean, pianorako bere bosgarren kontzertutzat hartzen da), ohore egin nahi izan zion beste birtuoso handi bati, kasu honetan, biolinjole bati. Horretarako, Paganiniren *Biolinerako 24. kapritxoa* gai ahaztezina hartu, eta 24 piano-bariazio egin zizkion, zein baino zein liluragarriagoa eta zailagoa. Partiturak aparteko dohainak dituen pianista bat eskatzen du, eta Treviñok Nikolai Lugansky errusiar birtuosoa gonbidatu du erronkari aurre egiteko, sakonki ezagutzen baitu Rakhmaninoven musika. Su artifizialen ikuskizun handi horren ondoren, Mahlerren sinfonia perfektuenetako batekin amaituko du Denboraldia Treviñok; hain zuzen ere, *Bosgarrena*rekin. Lan horretan, konpositoreak atzean uzten du bere lehen sinfonietako ipuin eta kantu folklorikoen eragina, eta erabat murgiltzen da orkestra-musikaren abstrakzioan.

Rachmaninoff fue uno de los pianistas más portentosos de la historia, y en la *Rapsodia sobre un tema de Paganini*, considerada de forma no oficial su quinto concierto para piano, quiso rendir pleitesía a otro enorme virtuoso, en este caso del violín. Lo hizo tomando el inolvidable tema del *Capricho para violín nº24* de Paganini y sometiéndolo a 24 variaciones pianísticas, cada cual más deslumbrante y difícil. La partitura requiere un pianista de dotes extraordinarias y Treviño ha invitado para el reto al gran virtuoso ruso Nikolai Lugansky, que conoce la música de Rachmaninoff en profundidad. Tras este gran espectáculo de fuegos artificiales, Treviño culminará la Temporada con una de las sinfonías más perfectas de Mahler, la *Quinta*, en la que el compositor deja atrás la influencia de los cuentos y canciones folclóricas de sus primeras sinfonías para sumergirse por completo en la abstracción de la música orquestal.

**Robert Treviño**
Zuzendaria ˚ Director



**Nikolai Lugansky**
Pianoa ˚ Piano



EKAINA ^ JUNIO

- **11 Donostia | San Sebastián A** > 19:30
- **14 Donostia | San Sebastián B** > 19:30
- **15 Pamplona | Iruña** > 19:30
- **16 Bilbao | Bilbo** > 19:30
- **17 Vitoria | Gasteiz** > 20:00

**Oharra: Kontzertu-programa honen antolamendua 2021 hasieran emango da ezagutzera.**
Nota: La organización de este programa de conciertos se comunicará a principios del 2021.

# ABONATU IZATEAGATIK

1. Deskontu handia eskuratzen dut sarrera solteen erosketarekiko (ia %40rainoko deskontua, eserlekuaren arabera).
2. Abonu kontzertuetarako sarrera solteak tarifa berezian eros ditzaket (lau hiriburuetan).
3. Abonamendua bi epetan ordain dezaket (errekargua: 1€).
4. Deskontua eskuratzen dut Miramongo Matinéetarako abonamendua erosterakoan.
5. Hurrengo Abonu-kontzertuaren abisua jaso dezaket SMS mezu bidez.
6. Hurrengo Abonu-kontzertuaren esku-egitaraua jaso dezaket posta elektroniko bidez.
7. Euskor buletin digitalaren bidez, Orkestraren berri jaso dezaket.

1. Obtengo un gran descuento con respecto a la compra de entradas sueltas (hasta casi un 40%, dependiendo de la localidad).
2. Puedo comprar entradas sueltas a precio de tarifa especial para los conciertos de Abono (en cualquiera de las cuatro capitales).
3. Puedo pagar el abono en dos plazos (recargo: 1€).
4. Obtengo un descuento en la compra del abono para las Matinées de Miramon.
5. Puedo recibir aviso del próximo concierto de Abono a través de un mensaje SMS.
6. Puedo recibir, por correo electrónico, el programa de mano del próximo concierto de Abono.
7. Puedo recibir las últimas noticias de Euskadiko Orkestra a través del boletín digital Euskor.

**INFORMAZIO GEHIAGO ESKURATU EDO ABONAMENDUAK EGITEKO:**

PARA MÁS INFORMACIÓN Y NUEVOS ABONOS:

**T. 943 01 32 32**
**mazpiroz@euskadikoorkestra.eus**
**euskadikoorkestra.eus**

# POR SER ABONADO/A



# PREZIOAK ^ PRECIOS

## Bilbao | Bilbo

Palacio Euskalduna Jauregia



| GUNEA ZONA | ABONAMENDUA ABONO 10 conciertos | | SARRERAK ENTRADAS | |
|---|---|---|---|---|
| | T. General | T. Especial * | T. General | T. Especial ** |
| **Zona 3** Palcos 0.1, 0.2, 5 y 6 Patio 24 a 32 Terrazas 1, 2, 3, 4 y 5 | 125 € | 75 € | 18 € | 10 € |
| **Zona 1** Patio 6 a 23 Palcos 1, 2, 3 y 4 | 220 € | 190 € | 35 € | 25 € |
| **Zona 2** Patio 1 a 5 Palcos 7, 8, 9, 10, 11 y 12 | 170 € | 150 € | 27 € | 20 € |

### SARREREN SALMENTA ^ VENTA DE ENTRADAS

Taquilla **Palacio Euskalduna Jauregiko leihatila.**
**Astelehenetik larunbatera** ˉ De lunes a sábado, 17:00 › 20:00.
**Kontzertu egunetan, halaber** ˉ Los días de concierto también 12:00 › 14:00.
**BBKren orotariko kutxazainetan** ˉ En los cajeros multiservicio de BBK
**euskadikoorkestra.eus** ˘ **euskalduna.eus**

## Donostia | San Sebastián

Auditorio Kursaal Auditoriuma



| GUNEA ZONA | ABONAMENDUA ABONO 10 conciertos | | SARRERAK ENTRADAS | |
|---|---|---|---|---|
| | T. General | T. Especial * | T. General | T. Especial ** |
| **Zona C Palco** | 125 € | 75 € | 18 € | 10 € |
| **Zona B** | 220 € | 190 € | 35 € | 25 € |
| **Zona A** | 170 € | 150 € | 27 € | 20 € |

### SARREREN SALMENTA ^ VENTA DE ENTRADAS

Taquilla **Auditorio Kursaal Auditoriumeko leihatila.**
**Astelehenetik asteazkenera** ˉ De lunes a miércoles 11:30 › 13:30
**Ostegun eta ostiraletan** ˉ Jueves y viernes 11:30 › 13:30 / 17:00 › 20:00
**Larunbatetan** ˉ Sábados 17:00 › 20:00
**Euskadiko Orkestraren eta Kursaal Eszenaren emankizun-egunetan** ˉ Días de actuación de Euskadiko Orkestra y Kursaal Eszena: 11:30 › 13:30 / 17:00 › 20:00
**euskadikoorkestra.eus** ˘ **kursaal.eus**

## Vitoria | Gasteiz

Teatro Principal
Antzokia



| GUNEA<br>ZONA | ABONAMENDUA<br>ABONO 10 conciertos | | SARRERAK<br>ENTRADAS | |
|---|---|---|---|---|
| | T. General | T. Especial * | T. General | T. Especial ** |
| **Anfiteatro** | 140 € | 75 € | 20 € | 10 € |
| **Butaca/Preferente** | 220 € | 190 € | 35 € | 25 € |

### SARREREN SALMENTA ^ VENTA DE ENTRADAS

Taquilla **Teatro Principal Antzokiko leihatila**
**Asteartetik larunbatera: 18:30 › 20:30 (jaiegunetan izan ezik) eta ikuskizun egunetan hasi baino bi ordu lehenago** ˉ De martes a sábado. 18:30 › 20:30 (excepto festivos) y los días de función dos horas antes del inicio.
**Telefonoz** ˉ Por teléfono: 945 161045.
**Kreditu-txartelaren bidez, ohiko ordutegian** ˉ Con tarjeta de crédito, en horario habitual.
**euskadikoorkestra.eus** ˇ **principalantzokia.org**

## Pamplona | Iruña

Auditorio Baluarte
Auditoriuma



| GUNEA<br>ZONA | ABONAMENDUA<br>ABONO 10 conciertos | | SARRERAK<br>ENTRADAS | |
|---|---|---|---|---|
| | T. General | T. Especial * | T. General | T. Especial ** |
| **Butaca de Palco** | 125€ | 75€ | 18€ | 10€ |
| **Butaca de Sala B** | 220 € | 190 € | 35 € | 25 € |
| **Butaca de Sala A** | 170 € | 150 € | 27 € | 20 € |

### SARREREN SALMENTA ^ VENTA DE ENTRADAS

Taquilla **Auditorio Baluarte Auditoriumeko leihatila**
**Astelehenetik larunbatera** ˉ De lunes a sábado
11:00 › 14:00 / 17:00 › 20:00
**euskadikoorkestra.eus** ˇ **baluarte.com**

***65 urtetik gorakoak eta 30 urtetik beherakoak (orkestrari helarazi NANaren fotokopia). **Ikasleak, 65 urtetik gorakoak, 30 urtetik beherakoak, abonatuak eta langabetuak.** *Mayores de 65 años y menores de 30 años (remitir a la orquesta fotocopia del DNI). **Estudiantes, mayores de 65 años, menores de 30 años, abonadas/os y desempleados/as.

**Covid-19aren pandemiaren ondoriozko edukiera-murrizpenak kontuan hartuta, 20/21 Denboraldiko sarrera solteak kontzertu egunak hurreratu ahala jarriko dira salgai, beti ere eserleku librerik egongo balitz.** Atendiendo a las restricciones de aforo causadas por la pandemia de la Covid-19, las entradas sueltas de la Temporada 20/21 se pondran a la venta a medida que se acerquen las fechas de los conciertos, siempre que haya disponibilidad.

# MIRAMONGO MATINÉEAK

## MATINÉES DE MIRAMON



**Euskadiko Orkestraren ganbera-musika zikloak 29 urteko etenik gabeko historiako ediziorik zalantzazkoena izango du aurten ziurrenik.** Zalantzazkoa da, neurri handi batean, bere garapena Covid-19 pandemiaren bilakaeraren eta gure lurraldean izango duen eraginaren araberakoa izango delako. Hala ere, edizio segurua izango da, beti unean-unean indarrean dauden segurtasun-neurriak zorrotz beteko baitira. Denboraldi honetan Euskadiko Orkestrak programazio aberats eta askotarikoa prestatzearen alde egin du. Hasteko, 2020ko martxotik ekainera bitartean bertan behera utzi behar izan ziren hainbat programa berreskuratuko dira. Ondoren, bosgarren hitzordutik aurrera etorriko dira nobedadeak, ohi bezala, Euskadiko Orkestrako musikaz osatutako hainbat ganbera-talderen eskutik, baina baita Kup Taldea edo Suhar Korua gure lurraldeko abesbatza garrantzitsuen eskutik ere. Miramongo Matinéeen ohiko formatu txiki eta intimotik aldenduko den kontzertu nagusia orkestra osoak apirilaren erdialdean Ravelen lanekin eskainiko duen entsegu orokor irekia izango da.

**El ciclo de música de cámara de Euskadiko Orkestra afronta la que posiblemente sea la edición más incierta de sus 29 años de historia ininterrumpida.** Incierta porque su desarrollo depende en gran medida de la evolución de la pandemia de la Covid-19 y su incidencia en nuestro territorio. Y, sin embargo, será una edición segura, pues se llevará a cabo siempre en el más estricto cumplimiento de las medidas de seguridad vigentes en cada momento. Euskadiko Orkestra ha apostado por preparar una Temporada con una programación rica y variada, que arrancará con la recuperación de varios de los programas que se tuvieron que cancelar entre marzo y junio del 2020. A partir de la quinta cita se presentan las novedades que, como es habitual, vendrán de la mano de varios grupos de cámara compuestos por músicas/os de Euskadiko Orkestra, pero también de otros invitados como Kup Taldea o Suhar Korua, dos importantes formaciones corales de nuestro territorio. El concierto que más diferirá del formato pequeño e íntimo habitual de las Matinées de Miramon será el ensayo general abierto que la orquesta al completo ofrecerá a mediados de abril con obras de Ravel.

ORKESTRAREN EGOITZA
SEDE DE LA ORQUESTA
**Miramon, 11:00 h.**





# MIRAMONGO MATINÉEAK
# MATINÉES DE MIRAMÓN

**2020**

01
**10**
URRIA ~ OCTUBRE

**BELHARRA**
Klasikoak?
¿Clásicos?

02
**24**
URRIA ~ OCTUBRE

**HAIZEA ETA PIANOA**
VIENTO Y PIANO
Haize erromantikoak
Vientos románticos

03
**7**
AZAROA ~ NOVIEMBRE

**BARROCOCO**
Fagotaren bidaia
Europako erdigunera
El fagot viaja
al centro de Europa

04
**14**
AZAROA ~ NOVIEMBRE

**QUINTETO ARIMA BOSKOTEA**
Bi bioladun kintetoak
Quintetos con dos violas

05
**5**
ABENDUA ~ DICIEMBRE

**CUARTETO MEFISTO LAUKOTEA**
Laukote sutsua
Cuarteto intenso

06
**19**
ABENDUA ~ DICIEMBRE

**KUADRILLA LAGUNAK**
Tango sensations

**2021**

07
**16**
URTARRILA ~ ENERO

**MIRAMON ENSEMBLE**
XX. mendera iragatea
Transición al siglo XX

08
**30**
URTARRILA ~ ENERO

**QUEENTETTAS**
Eskaintza
Ofrenda

09
**13**
OTSAILA ~ FEBRERO

**TRÍO RODA HIRUKOTEA**
Klarinetea, biolontxeloa
eta pianoa
Clarinete, violonchelo
y piano

**16 KONTZERTUKO* ABONAMENDUA**
ABONO PARA
16 CONCIERTOS

**84€**

**SALMENTA** / VENTA:
Tel.: 943 01 32 32
euskadikoorkestra.eus

**64€**
65 urtetik gorakoei, 30 urtetik beherakoei, Orkestrako beste zikloetako abonatuei, Kursaal Eszenako abonatuei, Kutxabankeko K26 eta K26+ txartelen titularrei, Eureka! Zientzia Museoko lagunei eta Musikene.
Mayores de 65 años, menores de 30 años, titulares de abonos de otros ciclos de la Orquesta, de Kursaal Eszena, de las tarjetas K26 y K26+ de Kutxabank, amigos/as de Eureka! Zientzia Museoa y Musikene.

* Beti ere eserleku librerik balego, Covid-19 pandemiaren garapenaren arabera.
* Sujeto a disponibilidad, atendiendo a la evolución de la pandemia de la Covid-19.

2021

10

27

OTSAILA ~ FEBRERO

**CUARTETO ATTACCA LAUKOTEA**

Beethoven gogora ekartzen
Recordando a Beethoven

11

13

MARTXOA ~ MARZO

**BACH CAMERATA MIRAMON**

Brandenburgeko kontzertuak. 300. urteurrena
Conciertos de Brandeburgo. 300 aniversario

12

27

MARTXOA ~ MARZO

**KUP TALDEA**

13

17

APIRILA ~ ABRIL

**EUSKADIKO ORKESTRA**

Entsegu orokor irekia
Ensayo general abierto

14

8

MAIATZA ~ MAYO

**TRÍO ALMA Y CÍA**

Schuberten oktetoa
Octeto de Schubert

15

22

MAIATZA ~ MAYO

**SUHAR KORUA**

Abesbatza eta pianoa
Coro y piano

16

12

EKAINA ~ JUNIO

**CUARTETO HEMIOLA LAUKOTEA**

Zazpi hitzak
Las siete palabras

**SARRERAK*** ENTRADAS **7€**

**SALMENTA** / VENTA:

- **euskadikoorkestra.eus**
- **Kursaal** (leihatila / taquilla)
- **EGOITZA** (leihatila) / **SEDE** (taquilla)

**Kontzertu-egunean 10:30etik aurrera, eserlekurik geratuko balitz.**
Día del concierto a partir de las 10:30h, si hubiera disponibilidad de aforo.

**MIRAMONERA AUTOBUSEZ**
A MIRAMON EN AUTOBÚS

**Doako autobus zerbitzua.**
Servicio gratuito de autobús.

Irteera / Salida: **10:25h.**

- Gipuzkoa Plaza 4
- Antso Jakituna 18
- Madril Hiribidea 34

# MUSIKA GELA

AULA DE MÚSICA





Euskadiko Orkestraren hezkuntza-zikloaren Denboraldi berria zirkuaren unibertsora hurbilketa batekin hasiko da (*Euskadiko Orkestra Cirkus*), jazzetik gertu dauden musiken eta musika herrikoiaren bidezko alaitasun-eztanda batekin gure publiko gazteenarentzat eta, ondoren, azken hilabeteetan bizitako konfinamendu-egoeraren parodia batekin jarraituko dugu (*Living Room Music*). Joan den Denboraldiko lehen esperientzia arrakastatsuaren ondoren, *Ekomusik* itzuliko da programaziora, ekologiaren kontzientzia hartzearen alde egingo duen musika barrokoko programa. Zikloaren egitarauari amaiera emateko, Beethoven omenduko da, jaio zenetik 250 urte igaro badira ere oraindik liluratuta baikaude musikagile honekin.
Ohiko Eskola kontzertuak eta Musika familian hitzorduak tailerrekin, entsegu irekiekin eta FEVAS-Plena Inclusión Euskadirekin lankidetzan egindako beste hainbat ekintzarekin osatuko dira.

La nueva Temporada del ciclo educativo de Euskadiko Orkestra comienza con un acercamiento al universo del circo (*Euskadiko Orkestra Cirkus*), una explosión de alegría a través de músicas cercanas al jazz y de la música popular para nuestro público más joven, seguida de una parodia de la situación de confinamiento vivida en los últimos meses (*Living Room Music*). Tras la primera experiencia exitosa de la Temporada pasada, se retoma también *Ekomusik*, un programa de música barroca que abogará por la toma de conciencia sobre la ecología. Se cierra la programación del ciclo con un homenaje a Beethoven, compositor que nos sigue fascinando 250 años después de su nacimiento.
Los habituales Conciertos para Escolares y Conciertos en Familia se complementan con talleres, ensayos abiertos y otras actividades realizadas en colaboración con FEVAS-Plena Inclusion Euskadi.

**Informazio gehiago eskatu, ekarpenen bat egin edo gure proposamenetariko batean parte hartzeko, jar zaitez gure Hezkuntza Departamentuarekin harremanetan:**
Para solicitar más información, hacer cualquier aportación o participar en alguna de nuestras propuestas, puedes ponerte en contacto con nuestro Departamento Educativo:

**Mikel Cañada**
mcanada@euskadikoorkestra.eus
**euskadikoorkestra.eus**

# MUSIKA GELA
## MUSIKA FAMILIAN ETA ESKOLA KONTZERTUAK

### EUSKADIKO ORKESTRA CIRKUS

**Eskola kontzertuak:**
**Haur Hezkuntza. Haurtxoentzako.**
**Musika familian**
Concierto para escolares:
Educación Infantil. Pequeña infancia.
Concierto en familia

**Kontzertu honetan zirkuari lotutako musikaren magia irudikatuko dugu; malabareak, magia-jokoak, clownak, orekariak eta musika surrealista bezain herrikoia, gure orkestrako musikariek interpretatua arte eszenikoetako artisten laguntzarekin. Alaitasun eta fantasiazko eztanda bat izango da, XIX. mende amaierako eta XX. mende hasierako musiken nahasketarekin: jazza, musika herrikoia, areto-musika eta musika jasoa.**

En este concierto recrearemos la magia de la música ligada al circo; malabares, juegos de magia, clown, equilibristas y una música entre el surrealismo y lo popular, interpretada por músicas/os de nuestra orquesta con la colaboración de artistas de artes escénicas. Una explosión de alegría y fantasía a través de músicas de finales del siglo XIX y principios del XX que mezclan estilos como el jazz, la música popular y de salón y la música culta.

### LIVING ROOM MUSIC

**Eskola kontzertuak:**
**Lehen Hezkuntza**
Concierto para escolares:
Educación Primaria

**Lau musikari berrogeialdiaren ondorioz harrapatuta geratzen dira urrutiko hiri bateko apartamentu batean. Familiako kideengandik urrun, derrigorrez konfinatuta, nahasita eta urduri samar, musika pixka bat egiteko aukera ematen duten etxeko elementu guztiak aztertzen dituzte: mahaiak, koilarak, haizemaileak, ura, lanparak, loreontziak, eskailerak, zabor-ontziak, eskuak, ahotsak... Kanpoaldearekin duten kontaktu bakarra auzotar indiskretu bat da, beren egoera berean dagoen soprano bat. Hura auzokideen "zarata" izugarriengatik pazientzia galtzen hasten da eta etengabe gogaitzen jardungo da...**

Cuatro músicas/os se ven sorprendidos por la cuarentena en un apartamento de una lejana ciudad de la que tienen prohibido salir. Lejos de sus familiares, confinadas/os por obligación con bastante desconcierto y nervios, exploran todos los elementos de la casa con los que se puede hacer algo de música: mesas, cucharas, abanicos, agua, lámparas, macetas, escaleras cubos de basura, sus manos, sus voces... Su único contacto con el exterior es una vecina bastante indiscreta, una soprano en su misma situación, que empieza a impacientarse por los terribles "ruidos" de sus vecinas/os y que no para de importunarlos...

# AULA DE MÚSICA
## CONCIERTOS EN FAMILIA Y CONCIERTOS PARA ESCOLARES

### EKOMUSIK

**Musika familian**
Concierto en familia

**Musika-tresnak artisau eran eraikitzea ingurunea errespetatuz eta musikaren esentzia bilatzea, naturan, bere itxurazko sorlekuan. Horiek izango dira oinarri musika klasikoaren eta ekologiaren arteko harreman zuzena ezartzea helburu duen kontzertu honetan. Harizko hamar instrumentuk eta klabezinak osatuko duten talde batek errepertorio barrokoa jorratuko du, historiako garai hartan oso ohikoa baitzen musikagileek naturaren elementuetara jotzea euren konposizioetan.**

Construir instrumentos musicales de manera artesanal respetando el medio ambiente y buscar la esencia de la música, que parece emerger de la propia naturaleza. Es lo que nos proponemos en este concierto que tiene como meta establecer una relación directa entre la música clásica y la ecología. Una formación de diez instrumentos de cuerda y clave abordará el repertorio barroco, momento histórico en el que los compositores recurrían con frecuencia a los elementos de la naturaleza.

### BEETHOVEN 250

**Eskola kontzertuak:**
**Lehen eta Bigarren Hezkuntza**
Concierto para escolares:
Educación Primaria y Secundaria

**Beethovenen jaiotzaren 250. urteurrena dela-eta, konpositorearen sinfonietako unerik gogoangarrienetako batzuk eskaini nahi dizkiogu gure publiko gazteari. Euskadiko Orkestraren eta Ana Eguiazabalen aurkezpenaren eskutik, Beethovenen obra sinfonikoak kulturari egindako ekarpena nabarmendu nahi dugu. Lan horrek indarrean jarraitzen du mundu osoko auditorioetan, bi mende eta erdi baino gehiagoren ondoren, eta pertsonen askatasunaren eta elkartasunaren aldeko kantua da.**

Con motivo del 250 aniversario del nacimiento del compositor, proponemos a nuestro público joven este concierto con algunos de los momentos más memorables de las sinfonías de Beethoven. De la mano de Euskadiko Orkestra y de la presentación de Ana Eguiazabal, pondremos en valor la aportación que para la cultura supuso la obra sinfónica de Beethoven, una obra que sigue vigente en los auditorios de todo el mundo, después de más de dos siglos y medio y que supone un canto a la libertad y la solidaridad entre las personas.

# BESTE PROIEKTU BATZUETAN BIDAIDE IZANGO DITUGU...



# OTROS PROYECTOS EN CONEXION CON...

**DONOSTIAKO MUSIKA HAMABOSTALDIA**
QUINCENA MUSICAL DE SAN SEBASTIÁN
**Abuztua 8** agosto:
Semyon Bychkov
**Abuztua 15** agosto:
Robert Treviño + Xabier Anduaga
**Abuztua 19** agosto:
Juanjo Mena + Asier Polo

---

**FESTIVAL DE SANTANDER**
**Abuztua 11** agosto

---

**EUSKALDUNA**
**Abuztua 22** agosto:
Berliozen Fantastikoa
La Fantástica de Berlioz

---

**ABAO BILBAO OPERA**
**Azaroa 21, 24, 27, 30** noviembre:
Alzira
**Otsaila 20, 23, 26, 27** febrero
**Martxoa 1** marzo:
L'elisir d'amore

**EL DIARIO VASCO**
**Abendua 17** diciembre:
Gabon Kontzertua
Concierto de Navidad

---

**EUSKADIKO ORKESTRA HERRIETAN**
**Abendua 18** diciembre
Getxo

---

**MUSIKA-MÚSICA**
**Martxoa 5, 6** marzo

---

**MUSIKASTE**
**Maiatza 15** mayo

---

**FUNDACIÓN BBVA**
**Ekaina 7** junio
Jakintzaren Mugak Sariak
Premios Fronteras del Conocimiento

# ORKESTRA IZENEZ IZEN

**Zuzendari Titularra** / Director Titular
**ROBERT TREVIÑO**

**Zuzendari elkartua** / Director asociado (20/21)
JAUME SANTONJA

**KONTZERTINO PRINTZIPAL GONBIDATUA**
CONCERTINO PRINCIPAL INVITADA
Birgit Kolar

**I BIOLINAK** / VIOLINES I
Waldemar Machmar (1)
Irene Echeveste (3)
José Ignacio Aizpiri
Inmaculada Aramburo
Laura Balboa
Xabier de Felipe
Marie Gaillard
Alexandre Kozouline
Oscar López
Maite Menéndez
Larraitz Oiartzabal
Ortzi Oihartzabal
Itziar Prieto
Maialen Rezabal
Cristina Vértiz

**II BIOLINAK**
VIOLINES II
Raquel Cortinas (2)
Xabier Gil (2)
Mikel Ibañez (3)
Amaia Asurmendi
Nathalie Dabadie
Virgile Demillac
David Escudero (4)
Christine Felden
Ludwik Hamela
Anne-Marie Harmat
Antoni Kosc
Ricardo Ruiz
Igor Torre

**BIOLAK** / VIOLAS
Delphine Dupuy (2)
Pawel Krymer (2)
Monika Mazur (3)
Pascal Arnaud
Natacha Dupuy-Scordamaglia
Justyna Janiak-Krymer
Elena Mtz. de Murguía
Arkaitz Martínez
Sergio Montero
Inés Picado
Yann Seyrac

**BIOLONTXELOAK**
VIOLONCHELOS
Juan Ignacio Emme (2)
Gabriel Mesado (2)
Flore Lefevre (3)
Natalia Diaz
Jacek Grabe-Zaremba
Jon Larraz
Beatriz Linares
Pascale Michaud
Ian Swedlund

**KONTRABAXUAK**
CONTRABAJOS
Arkadiusz Maciejski (2)
Paloma Torrado (2)
Guangyao Zhao (3)
Victor Bogdanov
Andras Cserna
Mehmet Sönmez
Pierre Torrent

**FLAUTAK** / FLAUTAS
Hélène Billard-Alirol (2)
Bruno Claverie (2)
Ander Erburu
Oihana Kontxeso

**OBOEAK** / OBOES
Silvia Esain (2) (4)
Hervé Michaud (2)
Rafael Alonso
Pascal Laffont

**KLARINETEAK**
CLARINETES
Luis Cámara (2)
José Miguel Chirivella (2)
Juan Navarro (2)
Stéphane Langlois
Sara Zufiaurre

**FAGOTAK** / FAGOTES
Marco Caratto (2)
François Proud (2)
Yuan Dai
Anne Charlotte Lacroix

**TRONPAK** / TROMPAS
Jean-Luc Casteret (2)
Cristian Palau (2)
Adrián García Carballo
Marcos Garrido (4)
Karl Pipkin
Xabier Sarasa
Salvador Tudela

# LOS NOMBRES DE LA ORQUESTA

**TRONPETAK** / TROMPETAS

Didier Bousquet (2)
Miguel Echepare (2)
Jesús Castillo
Daniel Sancasto

**TRONBOIAK** / TROMBONES

Arnaud Mandoche (2)
Christophe Sánchez (2)
Javier Almarza
Hervé Cahen
Daniel Ruibal (4)

**TUBA**

Oscar Abella (2)

**TINBALAK ETA PERKUSIOA**
TIMBALES Y PERCUSIÓN

Anthony Lafargue (2)
Héctor Marqués (2)
Igor Arostegi
Xabier Peña

**HARPA** / ARPA

Francesca Di Nicola (2) (4)

(1) Kontzertinoaren laguntzailea / Ayuda de concertino
(2) Bakarlaria / Solista
(3) Lehen tuttia / Primer tutti
(4) Aldi baterako kontratazioa / Contratación temporal

**ZUZENDARITZA NAGUSIA**
DIRECCIÓN GENERAL

**Oriol Roch**
*Zuzendari nagusia / Director general*
**Idoia Zubizarreta**
*Zuzendaritza idazkaria / Secretaria de dirección*

**EKOIZPENA** / PRODUCCIÓN

**Joxe Inazio Usabiaga**
*Zuzendari teknikoa / Director técnico*
**Pilar Maiz**
*Administratiboa-artistak / Administrativa-artistas*
**Marina Aguirreche**
*Erregidorea / Regidora*
**Nekane Zurutuza**
*Artxibo musikala / Archivo musical*

**KOMUNIKAZIOA** / COMUNICACIÓN

**Miren Elósegui**
*Komunikazio zuzendaria*
*Directora de comunicación*
**Iban Lertxundi**
*Prentsa / Prensa*
**Miren Maite Azpiroz**
*Administratiboa-abonatuak*
*Administrativa-abonados/as*

**ADMINISTRAZIOA ETA GGBB** / ADMINISTRACIÓN Y RRHH

**Saioa Aldasoro**
*Administrazio zuzendaria / Directora de administración*
**Arantxa Napal**
*Administrazio zuzendariaren albokoa*
*Adjunta a la directora de administración*
**Aitziber Garayalde**
*Administratiboa / Administrativa*
**Amaia Villaron**
*Administratiboa / Administrativa*

**HEZKUNTZA PROIEKTUAK | MUSIKA GELA**
PROYECTOS EDUCATIVOS | AULA DE MÚSICA

**Mikel Cañada**
*Kanpoko koordinatzailea / Coordinador externo*

**MONTATZAILEAK | GIDARIAK**
MONTADORES | CONDUCTORES

**Juan Tomás Olazaguirre**
**Xabier García**

**KONTSERJEA** / CONSERJE

**Javier Elvira**

Argitaratzailea / Edita: Orquesta de Euskadi S.A.
Lege Gordailua / Depósito Legal: SS-945-2019
Inprimaketa / Impresión: Gráficas Orvy
Diseinua / Diseño: ACC
Argazkiak / Fotos: Juantxo Egaña, Santiago Farizano, Iñigo Ibañez
Testuak / Textos: Mikel Chamizo, Euskadiko Orkestra












# EUSKADIKO ORKESTRA

Herri Baltzua
Sociedad pública de:

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

BEREN BABESA DUGU ^ NOS APOYAN

kutxa FUNDAZIOA

bbk

LABORAL kutxa

Ingeteam

Sabadell Fundación

Vital FUNDACIÓN · FUNDAZIOA

Irizar

---

gipuzkoa BATZAR NAGUSIAK · JUNTAS GENERALES

DONOSTIA SAN SEBASTIÁN

Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko Udala

SSIFF Donostia Zinemaldia Festival de San Sebastián International Film Festival

fundación sgae fundazioa

Eresbil

musikene

EGO

FEVAS Plena inclusión Euskadi

---

EL CORREO

EL DIARIO VASCO

eitb

SER

noticias GRUPO TALDEA

euskadikoorkestra.eus